Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA

2025eko OHIKOA

**KULTURA ETA ARTE MUGIMENDUAK**

*PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD*

*ORDINARIA 2025*

**MOVIMIENTOS CULTURALES Y ARTÍSTICOS**

**AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK**

Nahitaezkotzat jotzen da ikasleak terminologia teknikoa egoki erabiltzea, planteatutako galderen erantzunetan alderdi esanguratsuenak argi eta garbi adierazi ahal izan ditzan. Azterketako notaren 1 PUNTU honako alderdi hauei dagokie: koherentzia, kohesioa, gramatika-, lexiko-ortografia-zuzentasuna eta aurkezpena.

**Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea**

1. GALDERA. Irudi-iruzkina (4 puntu)

Irizpideak:

a) Irudia (izenburua, egilea, urtea) eta dagokion mugimendua edo testuingurua identifikatzen ditu. (1 puntu)

b) Irudia dagokion mugimenduaren edo testuinguruaren oinarrizko kontzeptuekin erlazionatzen du. (1 puntu)

c) Irudiaren berezko ezaugarriak azaltzen ditu (formalak, estilistikoak, teknikoak...). (1 puntu)

d) Obraren alderdi esanguratsu, formal, tekniko eta adierazkorrenak identifikatzen ditu eta egilearen arte-jardueraren ezaugarriekin lotzen ditu. (1 puntu)

Ariketa

Irudi adierazgarri honetan eta dagokion kultura- eta arte-mugimenduan oinarrizko kontzeptu inplizituak identifikatzea eta definitzea, eta irudi horrekin eta testuinguru historikoarekin lotzea:



2. GALDERA. Gai baten garapena (2’5 puntu)

Irizpideak:

a) Hautatutako gaiaren oinarrizko kontzeptuak azaltzen ditu (teorikoak, formalak, estilistikoak, teknikoak...) eta obraren aurrekariak eta ondorengo eraginak azaltzen ditu. (1,25 puntu)

b) Hautatutako gaia bere testuinguru ideologiko, kultural, soziopolitiko eta ekonomikoan kokatzen du. (1,25 puntu).

Ariketa:

Proposatzen diren bi aukeretatik, galdera bakarra aukeratu behar duzu garatzeko.

a) Arkitektura eta postmodernitatea: *High Tech* eta *dekonstruzioa*: Testuinguru soziopolitikoa, oinarri teorikoa, ezaugarriak, arkitektoak eta obra garrantzitsuenak.

b) *Dadaismoa*. Testuinguru soziopolitikoa, oinarri teorikoa, ezaugarriak, artistak eta obra garrantzitsuenak.

3. GALDERA. Irudi-iruzkina (2’5 puntu)

Irizpideak:

a) Irudiaren arte-mugimendua eta haren testuinguru historikoa eta kulturala ezagutzen eta azaltzen ditu. (1,25 puntu)

b) Artelana aztertzen eta iruzkintzen du, haren alderdi formalak eta teknikoak azpimarratuz, eta artelanaren gaia eta funtzioa ezagutzen eta azaltzen ditu. (1,25 puntu)

Ariketa:

Proposatutako bi irudietatik, A eta B, bat aukeratu behar duzu honen iruzkina egiteko.

a) Proposatutako obraren eta dagokion mugimenduaren artean dauden erlazioak azaldu. (1,25 puntu)

b) Analisi formala eta kromatikoa: konposizioa, kolorea, testura... Obraren alderdi formalak eta kromatikoak aztertu, eta gaia eta haren funtzioa azaldu. (1,25 puntu)

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA

2025eko OHIKOA

**KULTURA ETA ARTE MUGIMENDUAK**

*PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD*

*ORDINARIA 2025*

**MOVIMIENTOS CULTURALES Y ARTÍSTICOS**

A irudia:



*Maruja Mallo: Txorimaloa (1930). Olioa mihisearen gainean*

B irudia:



*Rafael Moneo: Donostiako Kursaal Jauregia (1990/1999)*